

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %3,2 hazi ziren 2006ko bigarren hiruhilekoan

Merkataritza espezializatuaren salmentek %4,0ko urte arteko hazkundera izan zuten, eta espezializatu gabekoaren salmentek, berriz, %1,8koa

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak %3,2an igo zituen 2006ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal hau, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, positiboa hori ere, %1,5ekoa, termino errealetan. Datu hauekin, 2006ko lehen seihilekoan txikizkako salmenten hazkunde nominala %4,7 izan zen, eta hazkunde erreala %3,1.

URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2004	II	4,7	7,0	0,3
	III	5,7	7,2	3,1
	IV	5,4	7,7	1,0
2005	I	1,6	2,9	-1,0
	II	2,8	2,8	2,8
	III	1,7	2,7	-0,3
	IV	0,4	0,4	0,3
2006	I	4,6	7,1	-0,5
	II	1,5	3,0	-1,6

Iturria: EUSTAT

Betiko txikizkako merkataritzak (espezializatua) salmenta nominalak %4,0 igo ditu 2006ko bigarren hiruhilekoan, 2005eko denboraldi beraren aldean. Igoera nominal hori %3,0ko hazkunde-tasa bihurtzen da termino errealetan.

Azalera handi eta ertainetako txikizkako merkataritza (espezializatu gabea) %1,8 igo da aurtengo bigarren hiruhilekoan, termino nominaletan. Urte arteko tasa errealean aldakuntza -%1,6koa da, 2005eko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena pertsonen hornikuntzako sektoreari dagokio. %10,1eko hazkunde nominala izan du; termino errealetan, %8,4koa. Elikagaien hazkundera ertaina izan da: %6,4koa termino nominaletan. Horrenbestez, tasa ere positiboa da, %2,5ekoa termino errealetan. Bestelako Kontsumo Ondasunen produktuen salmentak (kirolak, jolasak, optikak eta liburu-dendak, besteak beste) %3,3ko hazkunde nominala izan zuen, txikiagoa beraz;

produktu horien prezioen deflazio-efektuaren ondorioz, baina, termino errealetan, tasa hori %5,2 bihurtu zen. Etxearen hornikuntzako ondasunek jaitsiera izan dute: termino nominaletan, %6,5, eta urte arteko tasa, berriz, -%8,0 izan da termino errealetan.

Lurralde historikoetan, 2006ko bigarren hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Araban izan zen hazkunderik handiena, %7,6ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %11,1 hazi ziren, eta espezializatu gabekoarenak, %1,3.

Bizkaiak tarteko lurralde-bilakaera izan du (%3,1); merkataritza espezializatuko salmentak %4,1 hazi ziren eta espezializatu gabekoarenak %1,4.

Gipuzkoan eman zen txikizkako sektoreko urte arteko salmenten gehikuntzarik txikiena (%1,7), txikizkako merkataritza espezializatuaren gehikuntza %1,2koa eta %2,7ko gehikuntza espezializatu gabekoarena, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Txikizkako merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera %1,5 izan zen, aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren batez bestekoaren aldean. Lurraldeka honelakoa izan zen: Bizkaian %2,2 gehitu zen, Gipuzkoan %1,2 eta Araban %0,3 gutxitu zen. Txikizkako merkataritza sektorean, 2006ko bigarren hiruhilekoan, pertsonal okupatua ez zen aldatu aurreko hiruhilekoaren aldean. Araban %1,2 igo zen, Gipuzkoan %1,0 igo zen eta Bizkaian %0,9 urritu zen.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>